

Bikain + 2

–Lagundu, mesedez, lagundu! –oihu egin du iheska doan Hamar gaixo batek.

–Zer da? Zer gertatzen zaizu?

–Baina ez al duzue ikusten? Kenketa bat datorkit atzetik segika. Harrapatzen banau, nireak egin du.

–Zureak egin du...

Esan eta egin, Kenketak Hamarra harrapatu eta, bizkarrera salto eginez, bere ezpata zorrotz-zorrotzaz eraso egin dio. Hamar errukarriak hatz bat galdu du, eta gero, beste bat. Bere zorionerako, auto arrotz bat igaro da; Kenketak momentu batez bira eman du eta autoa moztea komeni ote den pentsatzen geratu da. Une hori aprobetxatuz, Hamarrak ospa egin eta atari batean ezkutatu da. Baina orain ez da Hamarra: orain Zortzia besterik ez da eta, gainera, sudurretik odola dario.

–Zer egin dizute, maite hori? Lagunekin borrokan ibili zara, ezta?

«Amatxo maitea, ahal duena salba bedi», esan du Zortziak berekiko.

Entzun duen ahotsa gozoa eta errukitsua izan arren, Zatiketarena da! Zatiketarena, bai! Zoritarreko Zortzia, «arratsalde on» ahul bat esanez, kalera irteren saiatu da, baina zatiketa oso da arina eta kris-kras guraizekada batez bitan ebaki du: Lau eta Lau. Bat poltsikoan sartu du, baina besteak, aukera aprobetxatuz, hanka egin eta lasterka kalera irten eta tranbia batera salto egin du.

–Duela gutxi, Hamarra nintzen –esan du erdi negarrez–, eta orain, ordea, begira iezadazue. Laua besterik ez! Laua!

Ikasleak korrika eta presaka urrutiratzen zaizkio; ez dute berekin ezertxo ere jakin nahi. Gidaria marmarrean ari da:

–Zenbaitzuek, behintzat, oinez joatea hobe dela jakin behar lukete.

–Baina ez da nire errua –oihu egin du zotinka Hamar zenak.

–Bai, noski, katuarena da errua. Denek gauza bera esaten dute.

Laua lehen geltokian jaitsi da arrain gorri bat bezain gorriturik.

Ene! Beste bihurrikeriaren bat egin du; norbait zapaldu du.

–Barka, barka, emakume!

Baina emakumea ez dago haserre; irribarrez ari da.

Kontxo, kontxo! Biderkera bera da-eta! Bihotz zabalakoa da oso eta ezin jasan du besteak triste ikustea: eseri eta Laua hirukoiztu egin du.

Eta hona hemen Hamabi eder bat, dozena bat arrautza zenbatzeko prest.

–Gora! –esan du Hamabiak–. Gainditu egin dut! Bikain gehi bi!



GIANNI RODARI

Telefonozko ipuinak (moldatua)

1 Testua berriz irakurri gabe, ordenatu zenbakiak testuan agertzen diren ordenaren arabera.

☐ 8 ☐ 12 ☐ 10 ☐ 4

2 Erantzun.


Zer darama eskuan Kenketak? Zer egin dio Hamarrari? _____

Nola hartu dute Laua tranbian zeudenek? _____

3 Testuan pertsonifikazioa erabiltzen du egileak. Baina zer da pertsonifikazioa?

- ☐ Gizakiei, animaliei eta izaki bizigabeei kontzeptu abstraktuen ezaugarriak ematea da pertsonifikazioa.
- ☐ Izaki bizigabeei, animaliei edo kontzeptu abstraktuei gizakien portaera eta ezaugarriak ematea da pertsonifikazioa.
- ☐ Animaliak pertsona bihurtzea da pertsonifikazioa.

4 Hiru irudi hauetan zeinetan dago pertsonifikazioa, eta zeinetan ez? Azaldu.



1: _____

2: _____

3: _____